

## **BALIO PROPOSAMENA**

Gure proiektuari esker, bezeroek eguneroko hainbat arazoei aurre egiteko gai dira. Aplikazio honen bitartez, laguntzen dugu zalantzak dituzten pertsonari egun edo egoera horretarako arropa erabakitzen. Aukera berri honek beste enpresetatik nabarmentzen gaitu, lehiakidetasuna handituz. Lehiakideengandik bereizten gara, adibidez prezioagatik; gure aplikazioa doan baita.

Gure aplikazioa erabili nahi duen ororentzat zuzenduta dago, horregatik erabat dohainik izango da, ez dugulako nahi nahiko dirua ez duten pertsonak aukera hau gabe geratzea. Gainera aplikazio oso berritzailea da. Egia da arroparekin zerikusia duten aplikazioak daudela, baina ez dituzte eskaintzen gu bezalako abantailak. Asmakizun berritzailea da, zure arropa aukeratu ez ezik, ere zure outfitak partekatu al dituzulako.

Gure balioa, kualitatiboa izango da, hau da, diseinura eta eraginkortasunera bideratzen da. Gure diseinua, informatikan eta estilismoan adituak diren pertsonak egin dute. Ondorioz, enplegua sortu dugu eta hainbat lanpostu sortu ditugu gure enpresa barruan. Gure enpresa arduratzen da langileen lan kalitateaz eta haiek edozein arazo izanez gero, gurekin hitz egin dezakete konfiantza osoz, hurbiltasuna bultzatuz gure giroan. Gainera, gure bezeroak guretzat ezinbestekoak dira eta beti izango dute eskura laguntzaile bat, e-mail bat bidaliz gure enpresako laguntza mintegira.

Gure balioen artean hauek daude:

- Hobekuntza jarraitua: bikaintasunaren lortzen saiatuko gara.
- Pertsonakiko errespetua: justizia eta zuzentasuna bermatzen dizkiegu bai bezeroei bai bazkideei.
- Diziplina: funtsezko faktorea da gure helburuak betetzeko.
- Segurtasuna: segurtasuna ziurtatzen dugu aurrera eramaten ditugun egintza guztietan.
- Fidagarritasuna: konfiantza eta guztiko ziurtasuna izatea ezinbestekoa da aplikazioaren funtzionamendua aurrera ateratzeko.